

Mondragon Unibertsitateak bi garraio lerro berri jarri ditu martxan, bere Bizkaia eta Gipuzkoako ikasleei zuzenduta

2007/09/19

Irailaren 21ean hasita, Mondragon Unibertsitateak bi autobus zerbitzu izango ditu martxan, Gipuzkoako eta Bizkaiko bere ikasleak Debagoienan dituen bere hiru campus-etara ekartzeko.

Zerbitzu bat Azpeititik abiatuko da egunero, goizeko 06:35ean, eta jasoko ditu Azkoitia, Elgoibar eta Eibarko ikasleak. Bigarren zerbitzua abiatuko da Etxebarriko metro geltokitik, goizeko 06:40an, eta jasoko ditu Zornotza, Durango, Matiena, Abadiño, Atxondo eta Elorrioko ikasleak. Autobus biek Arrasaten egingo dute transbordo, Eroski hipermerkatuaren ondoan, eta handik ni norantzetan banatuko dira: bat Oñatira joango da, Enpresa Zientzien Fakultatera, eta bestea Arrasatera, Goi Eskola Politeknikora, eta Eskoriatzara, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatera.

Ikasleek zerbitzu modalitate ezberdinak izango dituzte aukeran; osatuena, eguneroko joan-etorri bidaiak barneratzen dituen, edota zerbitzua egunean behin erabiltzeko aukera, bai eta astelehen eta ostiraletan bakarrik erabiltzekoa, astean zehar campus inguruan bizitza erabakitzen dutenentzat pentsatua.

Izen-emate epea zabalik dago eta interesa dutenek zentru bakoitzeko idazkaritza akademikora jo dezake.

Informazio gehiago

